

Emakume futbolarien eskubideak



JUAN MARI ARREGI

Desberdintasuna, diskriminazioa, prekaritatea eta injustizia erabat txertaturik daude emakumeen egunerokoan. Orain futbolaren arloan azalerazi zaigu ezkutuko mundu hori.

Iberdrola Ligan jokatzeko duten Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko futbolariak greba egin dute asteburuan. Gizonezko futbolarietako soldata berdintasunaz gain, jokalariek eskatzen dute profesional gisa aitortuak izan daitezela, hitzarmen kolektibo bat edukitzea eta euren lan eskubideak errespetatuak izatea. Egun erdiko jardunagatik 12.000 euroko gutxieneko soldata nahi dute, baina patronala (klubak) soilik 8.000 euro bermatzeko prest dago. Gogoan izan behar da jokalariek gehienak 24 orduz direla jokalariek, futbola baita euren benetako lanbidea.

Aitortu eta txalotu egin behar da futbolari emakumeen erabakia, legitimitate osoz jo dute grebara, euren egoera guztiz injustua delako: baztertuta eta prekarioan lanean. Kirolaren munduan gutxitan egin izan da grebarik, eta emakumeek egindako hau seguruenik lehen izan da modu orokorrean egin dena.

Amatasunagatik eta lesioek eragindako ezintasunagatik laguntzak eskatzen dituzte, eta lanuzte hau beste pauso bat da emakumeek euren eskubideak lortzeko bidean. Patriarkatuaren hidraren kontrako borroka luze horretan (zapalkuntza, esplotazioa, menperatzea eta kolonizazioa) emakume askok euren bizitza ere eman izan dute. Haien borrokaren berri dugu gutxienez XIV. edo XV. mendetik, baina zigarrerak, pospologileak, eta ehungintzako langileak izan ziren, Euskal Herrian, Katalunian eta Andaluzian lehen greba feministak egin zituztenak eta ondorengoei bidea erakutsi zietenak. ●



Orain euskal salgaien fetitxismoa

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ohiko erakusketa batek baino oihartzun mediatiko handiagoa izan zuen Tabakalera urri amaieran inauguratu zuten *Orain diseinua! Euskadi eta industria-k*. Segur aski, ezohiko arreta hori zor zaio egun hartan Donostiako kultura garaikideko zentroan agertu ziren ordezkari politikoei edo, konkretuagoak izateko, agintariak zapaltzen dituzten baldosak musukatzeko joera duten Euskal Erdiko hedabide nagusiei: egun hartan gauza “kultural” batez tartar egitea tokatu zitzaizen, beste batzuetan hegaluzearen asteaz hitz egiten dute.

Irakurlea ohartuko zen komatxo artean idatzi dugula “kultural” hitza. Izan ere, inpresioa daukat *Orain diseinua!*-k interesen bat baldin badu, ez dela erakusketa bera, eraiki nahi duen narratiba baizik: euskal industria zein garrantzitsua den aldarrikatu nahi da beste behin ere, baina oraingo honetan, inpaktu ekonomikoarekin lotutako datuak erabili beharrean, beste legitimazio-bide batzuk bilatzen dira. Diskurtsoak dio ikus daitezkeen objektuak, daukaten “diseinu bikainagatik gure kultura, industria eta ekonomia garaikidearen adibide” direla. “Ekoizpen hori ezagutzeak eta aztertzeak harremanak sortzen ditu orainaldian eta, horrez gain, enpresaren, produktuaren, herritartasunaren eta kulturaren arteko lotura berriak proposatzeko aukera ematen digu”.

Salgaien fetitxismoa, euskal abizenekin: produktuak subjektu izaerara auzatzen dira, euskal identitatea gai industrialen bitartez definitzen ahalegintzen da erakusketa, kanpoko formari garrantzia emanez, objektu bukatuari. Baina ez digu ezer askorik esaten haiek fabrikatzen lan egin zuten euskal herritarrez. Eta, espero izatekoa zen moduan, ez dugu deus jakingo prozesu horren amaieran Lambretta motoaren piezak muntatzen aritu zen beharginaren jonalaz edo nagusiak eskuratu zuten plusbalioaz. Debate etiko serio bat ere planteatzen zaio sen kritikoa etxean utzi ez duen bisitariari: erakusketaren atal bat gurean ekoiztutako armek hartzen dute. Pistolak, metraladoreak eta subfusilak objektu estetiko bihurtuta, eta tresna horiek izan dezaketen erabilerari buruzko aipamenik ez –jendea hiltzeko erremintek ere irabaziak ematen baitituzte, beraz, ez da komeni–.

Gainera, susmoa daukat erakusketa hau sinbolo bat dela EAEko erakunde publikoentzat. Tabakalera industrian belaunikatzeko operazioan urrats bat gehiago, argi erakutsiz zentroaren zuzendaritza aldatu zutenetik zein den hartu nahi duten norabidea: enpresariaren neurriaren egindako programazio kulturala. ●